


TXIPRES BASERRIA
C MAILA

SAN MARKOSKO BIDEA 94-96



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Osorik harlangaitz hormaz eraikitako fatxadak ditu. Harrizko dobelez eta arku zorrotzez egindako hiru bao nabarmentzen dira. Horietako bi fatxada nagusian daude. Jatorrizko baoetako asko itsututa daude eta perimetroan zehar beste batzuk ireki dituzte. Horietako batek hormigoizko balkoia du. Gainera, kanpotik sarrera duen alboko gorputz bat erantsi diote. Behe oina, lehen oina eta estalkipeko bigarren oina ditu.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: bao berri guztiak; harlanduzko azpadurak ez dituztenak; hormigoizko balkoia; leihoetako arotzeria; alboka erantsitako gorputza eta eskailera.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek:
 - * Nahitaezko lehengoratzek: atxikitako gorputza eta alboko eskailera, eta hormigoizko balkoia ezabatzea.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko irizpideak betetzeari lotutako gainerakoak.